

FERNANDO ETA KAZEROAK

Mendatako Jose Ignacio Malleak kontatuta

Fernando orbela batzen ibili ei zan, orbela batu eta orbela batu gaztainadian eta... kazeroak han etorri ei ziran listo, baina ordurako eskobariagaz bertan jo ei eban ze... mantso-mantso etorri ei zan erbitxuori tiroa hartuta, eta... danba! jo ta aspelan azpian sartu ei eban harek. Kazeroak gura izan eben jakin handik pasatu bada edo hantxe urrun barik dabela, jakin eben zeozter ikusi behar izan ebana eta... preguntatu egin eutsien:

– Hemendik erbirik edo pasetan ikusi dozu Fernando?

– Ondino ez dot pentsetan hamabiak diranik.

Esaten ei eutsien Fernandok eta:

– Baina hori ez jatzu preguntetan, hemendik ikusi badozu erbirik edo pasetan baino?

– Oraindik hamabi eta erdiak be ez dozak heldu –atzera esan ei eutsien eta...–.

– Atzera barriz be preguntatu enbitxek. –Esan eben beste biak–.

– Esajok! –Batak besteari–.

– Fernando hemen ikusi dozu erbirik edo holan erdi mankatuta pasetan?

– Ondinoarren ez dozak hamabiterdiak. –Atzera be esan ei eutsien–.

– Burutik jauk eta itxi jok –esan ei eutsan kazero batak besteari–.

– Goizak, goizak!

Fernando be pozik, eta handik denporagarrenera be harek kazeroak handixik pasatu ei ziran atzera barriri euren txakurrekaz:

– Hor jauk!

– Oraintxe esan bitxeuk!

– Esan jok!

– Hamabi eta erdiak ez dozak ba ondino!

- Ai... ondo edarra egon zonan, andreak eta biok jan genduan.

Mendatako gure geurea denontzat

Idoia Mallea Lamikiz

Mendatako Udala

Bilbo 2002